


itzulpena:

Nahia Kalparsoro Urrutikoetxea
Ieltxu Gorostiaga Pérez
Maren Duñabeitia Uribe



Reigateko jauntxoak

ARTHUR CONAN DOYLE



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ARTHUR CONAN DOYLE

Reigateko jauntxoak

itzulpena:

Nahia Kalparsoro Urrutikoetxea

Ieltxu Gorostiaga Pérez

Maren Duñabeitia Uribe

Denbora pixka bat igaro zen nire lagun Sherlock Holmesen osasuna 87ko udaberrian egin zituen ahalegin itzelek eragindako tentsiotik errekuperatu arte. Herbehereak-Sumatra Enpresaren kontu guztiak eta Baron Maupertuisen proiektu izugarriak berrieki dira publikoaren buruan, eta lotura estuegia dute politikarekin eta finantzekin, zirriborro sorta honetarako gai egokiak izateko. Hala ere, zeharka arazo berezi eta konplexu batera eraman zuten, eta horrek aukera eman zion nire lagunari arma berri baten balioa frogatzeko, krimenaren aurkako bizitza osoko borrokatik askatu zituen askoren artean.

Nire oharrak kontsultatzean, ikusi dut apirilaren 14an Lyonetik telegrama bat jaso nuela, Holmes Dulong hotelean gaixorik zegoela jakinarazten zuena. Hogeita lau ordu geroago bere gaixo-gelan nengoen, eta lasaitu egin nintzen haren sintometan ezer ikaragarririk ez zegoela ikustean. Baina burdinazko gopuzkera bera ere lur jota beratu zen bi hilabetez luzatu zen ikerketa baten tentsioaren ondorioz, garai horretan ez baitzuen inoiz egunean hamabost ordu baino gutxiago lan egin, eta behin baino gehiagotan, ziurtatu zidanez, bost egunez jarraian bete zuen bere lana. Bere lanen emaitza garaileak ere ezin izan zuten erreakziotik salbatu hain ahalegin ikaragarriaren ondoren, eta Europak bere izenarekin durundi egiten zuen unean eta bere gela zorion-telegramez orkatiletaraino beteta zegoenean, depresiorik beltzenak jota aurkitu nuen. Hiru herrialdetako poliziak porrot egin zuen tokian arrakasta izan zuela eta Europako iruzurgilerik burutuena une oro gaingitu zuela jakitea ere ez zen nahikoa izan bere urduritasunetik esnatzeko.

Hiru egun geroago elkarrekin geunden berriro Baker Streeten, baina argi zegoen nire laguna askoz hobeto egongo zela aldaketa batekin, eta udaberrian astebete landetan igarotzea oso ideia erakargarria zen niretzat ere. Nire lagun zaharrak, Hayter koronela, Afganistanen nire ardura profesionalaren pean egon zenak, etxe bat alokatua zuen Reigate ondoan, Surreyn, eta sarritan eskatzen zidan bisitan joateko. Azkenekoan komentatu zuen, nire lagunak nirekin etorri nahiko balu, pozik emango liokeela bere abegi ona ere. Diplomazia pixka bat behar zen, baina Holmesek ezkongabeen-etxea zela eta askatasunik handiena emango zitzaiola ulertu zuenean, ados egon zen nire asmoekin, eta, Lyonetik itzuli eta astebetera, koronelaren etxean geunden. Hayter soldadu ona zen, munduaren zati handi bat ikusi zuena, eta laster konturatu zen Holmesek eta hark asko zutela amakomunean, nik espero nuen bezala. Iritsi ginen gauean koronelaren kanoi-gelan eserita geunden afalondoan, Holmes sofan etzan zen, Hayter eta biok haren ekialdeko armajantzi txikiari begiratzen genion bitartean.

—Aizu, —esan zuen bat-batean— Uste dut pistola horietako bat goiko solairura eramango dudala, larrialdi bat badago.

—Larrialdi bat! —esan nuen.

—Bai, azkenaldian susto bat izan dugu hemen. Joan den astelehenean Acton zaharraren etxean sartu ziren, konderriko handikietako baten etxean. Ez zen kalte handirik izan, baina subjektuek ihes egiten jarraitzen dute.

—Ezta ideiarik ere?—galdetu zuen Holmesek, koronelari zeharka begiratuz.

—Oraindik ez. Baina kontu potoloa da, gure landa-krimen txikietako bat, zure arretarako txikiegia irudituko zaizu, Holmes jauna, nazioarteko auzi handi honen ondoren.

Holmesek uko egin zion konplimenduari, nahiz eta irribarreak erakutsi zuen atsegin izan zuela.

—Ba al zegoen ezaugarri interesgarririk?

—Ez dut uste. Lapurrek liburutegia arpilatu zuten eta oso gutxi lortu zuten trukean. Leku osoa hankaz gora zegoen, tiraderak bat-batean ireki ziren eta prentsak arpilatuak izan ziren, ondorioz, honako guzti hau desagertu da: Popen Homeroren liburuki arraro bat, zilar koloreko bi argimutil, gutun-zapalgailu bat, haritzeko barometro txiki bat eta kordel bola bat.

—A zer nolako bilduma bikaina! —oihu egin nuen—. Argi dago mutikoek ahal izan zuten guztia eraman zutela.

Holmesek marmar egin zuen sofatik.

—Konderriko poliziak zerbait egin beharko luke —esan zuen—; Argi dago...

Baina behatz bat altxatu nuen ohartarazpen gisa.

—Hemen zaude atsedean hartzeko, adiskide maitea. Jainkoaren izenean, ez hasi arazo berri batekin, nerbioak dantzari dituzu eta.

Holmesek sorbaldak jaso zituen koronelarenganako etsipen komikozko begirada batez, eta elkarriketa hain arriskutsuak ez ziren bideetara desbideratu zen.

Hala ere, alferrikakoa zen nire zuhurtzia profesional guztia, zeren biharamun goizean halako moldez agertu baitzitzaigun arazoa, non ezinezkoa baitzen ez ikusiarena egitea, eta landara egin genuen bisitak bira bat hartu zuen, gutako inork aurreikusi ez zezakeena. Gosaltzen ari ginela, koronelaren maiordomoa korrika sartu zen, adeitasun guztia galaraziz.

—Entzun al dituzu albisteak, jauna? —esan zuen—. Cunninghamtarren etxean, jauna!

—Lapurreta! —garrasi egin zuen koronelak, bere kafe kikara airean zuela.

—Hilketa!

Koronelak txistu egin zuen. —Alajainkoa! —esan zuen—. Nor hil dute, orduan? J.P. ala bere semea?

—Ez bata ez bestea, jauna. William zen, gurdizaina. Bihotzean tiro egin zioten, jauna, eta sekula ez zuen berriro hitz egin.

—Nork egin zion tiro, orduan?

—Lapurrak, jauna. Zitzu bizian alde egin zuen. Jangelaren leihotik sartu berria zela, William hurbildu zitzaion eta bere amaiera aurkitu zuen nagusiaren jabetza salbatzean.

—Zer ordutan?

—Atzo gauean izan zen, jauna, hamabiak aldera.

—Orduan, gero hurbilduko gara —esan zuen koronelak, eta lasai-lasai gosaltzen jarraitu zuen—. Oso kontu serioa da, —gaineratu zuen etxezainak alde egin zuenean;— bera da gure liderra hemen, Cunningham zaharra da, eta, gainera, oso tipo txukuna da. Saminduta sentituko da honengatik, gizona bere zerbitzura egon delako urteetan eta zerbitzari ona izan delako. Bistan denez, Actonen etxera sartu ziren bilau berberak dira.

—Eta bilduma berezi hori lapurtu zuten —esan zuen Holmesek, pentsakor.

—Hain zuzen ere.

—Hala da! Baliteke munduko arazorik sinpleena izatea, baina, hala ere, lehen begiratuan bitxi samarra da, ez al da hala? Landan jarduten duen lapur talde batek bere operazioen eszenatokia aldatzea espero liteke, eta ez egun gutxi batzuetan barruti berean bi etxe lapurtzea. Atzo gauean kontuz ibiltzeaz hitz egin zenuenean, gogoan dut burutik pasatu zitzaidalda lapurrek edo lapurrek arreta jarriko ziotela Ingalaterrako azken barrutia izango zenari, eta horrek erakusten du oraindik asko dudala ikasteko.

—Pentsatzen dut bertako profesional bat dela —esan zuen koronelak—. Kasu horretan, jakina, Actonenera eta Cunninghamen era joango lirateke, hemengo handienak baitira.

—Eta aberatsenak?

—Beno, hala izan beharko lukete, baina urte batzuetan biei odola xurgatu dien auzi-eske bat izan dute, nik uste. Old Actonek Cunninghamen herentziaren erdiaren gaineko eskubideak ditu, eta abokatuek lanari ekin diote.

—Bertako bilau bat bada, ez litzateke zailtasun handirik egon beharko harrapatzeko —esan zuen Holmesek aharrausika—. Ongi da, Watson, ez naiz tartean sartuko.

—Forrester inspektorea, jauna —esan zuen maiordomoak, atea bat-batean irekiz.

Ofiziala, gazte argia eta aurpegi zorrotzekoa, gelan sartu zen.

—Egun on, koronela —esan zuen—; espero dut ez molestatzeko, baina jakin dugu Baker Streeteko Holmes jauna hemen dagoela.

Koronelak eskuaz keinu bat egin zion nire lagunari, eta inspektoreak erreberentzia egin zuen.

—Pentsatu dugu agian sartu nahiko zenukeela, Holmes jauna.

—Patua zure kontra dago, Watson —esan zuen barrez—. Gaiari buruz hitz egiten ari ginen zu sartu zarenean, inspektore jauna. Agian xehetasun batzuk eman ahal izango dizkiguzu.

Ohiko jarreran bere aulkian etzaten zen bitartean, jakin nuen kasuak ez zuela konponbiderik.

—Ez genuen ideiarik ere Actonen auziaz. Baina kasu honetan asko dugu emateko eta ez dago zalantzarik kasu bakoitzean talde bera dela. Gizona ikusi zuten.

—A!

—Bai, jauna. Baina orein bat bezala irten zen korrika William Kirwan gizajoa hil zuen tiroaren ostean. Cunninghamek logelako leihotik ikusi zuen, eta Alec Cunningham jaunak atzeko korridoretik ikusi zuen.

Hamabiak laurden gutxi ziren alarmak jo zuenean. Cunningham jauna ohean sartu berria zen, eta Alec jauna pipa bat txabusinan erretzen ari zen. Biek entzun zuten William, gurdizaina, laguntza eske, eta Alec jauna korrika jaitsi zen zer gertatzen zen ikustera. Atzeko atea zabalik zegoen, eta eskailera-oinera iritsi zenean, bi gizon ikusi zituen kanpoan borrokan. Haietako batek tiro egin zuen, bestea lurrera erori zen, eta hiltzailea korrika joan zen lorategian zehar eta hesiaren gainetik. Cunningham jaunak, bere logelatik kanpo begiratzuz, gizona ikusi zuen errepidera iristen, baina berehala galdu zuen bistatik. Alec jauna gelditu egin zen hiltzorian zegoenari laguntzerik ba ote zuen ikusteko, eta bilauak ihes egitea lortu zuen. Altuera ertaineko gizona zen eta arropa iluna zuen, handik haratago ez dugu bestelako arrastorik; baina ikerketa sakonak egiten ari gara, eta ezezaguna bada, laster deskubrituko dugu.

—Zer egiten zuen han William horrek? Hil baino lehen zerbait esan al zuen?

—Ezta hitzik ere. Amarekin etxola batean bizi da, eta oso gizon leiala zenez, pentsatu genuen etxera hurbildu zela, dena ondo zegoela ikusteko asmoz. Jakina, Actonen negozio honek mundu guztia erne jarri du. Lapurrak atea zabal-zabal ireki behar izan zuen —sarraila bortxatua izan da—, Williamek berarekin topo egin zuenean.

—Zerbait esan al zion Williamek amari irten baino lehen?

—Oso zaharra eta gorra da, eta ezin dugu harengandik informaziorik lortu. Shockak erdi erotuta utzi zuen, baina ez zen inoiz oso argia izan. Hala ere, oso egoera garrantzitsua dago. Begira hau!

Koaderno batetik paper puska bat hartu eta belaunaren gainean luzatu zuen.

—Hildako gizonaren hatz erakuslearen eta erpuaren artean aurkitu zuten hau. Hosto handiago batetik erauzitako zati bat dirudi. Ikusiko duzu bertan aipatutako ordua dela gizajoak bere patua aurkitu zueneko une zehatza. Baliteke bere hiltzaileak hostoa erauzi izana edo zati hori kendu izana hiltzaileari. Ia hitzordu bat balitz bezala irakurtzen da.

Holmesek paper puska hartu zuen, jarraian haren faksimila erreproduzitzen da.

—Hitzordu bat dela suposatuz gero —jarraitu zuen inspektoreak —, pentsatzekoa da, noski, William Kirwan hau, gizon zintzoa izatearen ospea zuen arren, lapurraren konplizea izan zitekeela. Baliteke han aurkitu izana, atea apurtzen ere lagundu izana, eta gero haien artean eztabaidatu izana.

—Idatzi hau oso interesgarria da —esan zuen Holmesek, arreta handiz aztertu zuen—. Ustez baino sakonagoa da kontua. —Burua esku artean sartu zuen, eta inspektoreak irribarre egin zuen, bere kasuak Londresko aditu ospetsuarengan izan zuen eraginaren aurrean.

—Zure azken iruzkinari dagokionez, —esan zuen Holmesek handik pixka batera— lapurraren eta zerbitzariaren artean ulermen bat egoteari buruz eta bien arteko hitzordu-ohar bat izateari buruz, suposizio burutsua da eta ez guztiz ezinezkoa. Baina idazki hau zintzoa da... —Burua berriro esku artean sartu eta minutu batzuk eman zituen pentsamendurik sakonenetan murgilduta. Aurpegia berriro

altxatu zuenean, harritu egin nintzen masailak kolorez tindaturik zeudela ikusteak, eta begiak bere gaixotasunaren aurretik bezain distiratsuak. Jauzi batez zutitu zen bere lehengo kemen guztiaz.

Gauza bat esango dizut —esan zuen—, kasu honen xehetasunei begiratu lasaia eman nahi nieke. Bada zerbait izugarri liluratzen nauena. Utziko badidazu, koronela, Watson laguna eta zu utziko zaituztet, eta inspektorearengana hurbilduko naiz, nire fantasia txiki baten edo biren egiazkotasuna egiaztatzen. Zurekin egongo naiz ordu erdian.

Ordu eta erdi igaro zen inspektorea bakarrik itzuli baino lehen.

—Holmes jauna alde batetik bestera dabil zelaitik —esan zuen—. Laurok elkarrekin etxera igotzea nahi du.

—Cunningham jaunaren etxera?

—Bai, jauna.

—Zertarako?

Inspektoreak sorbaldak jaso zituen.

—Ez dakit oso ondo, jauna. Gure artean, uste dut Holmes jauna oraindik ez dela guztiz sendatu. Oso modu bitxian jokatzeko aritu da eta oso aztoratuta dago.

—Ez dut uste zuk zeuk kezkatu behar duzunik —esan nion—. Konturatu naiz metodo bat dagoela haren eromenean.

—Batzuek esango lukete eromena dagoela bere metodoan —xuxurlatu zuen inspektoreak—. Baina hasteko irrikan dago, koronela; beraz, prest bazaude, goazen.

Holmes zelaian zehar alde batetik bestera paseatzen aurkitu genuen, kokotsa bularrean sartuta eta eskuak galtzetako poltsikoetan sartuta.

—Gaia geroz eta interesgarriagoa da —adierazi zuen—. Watson, landara egindako bidaia arrakastatsua izan da. Goiz zoragarria izan dut.

—Krimenaren lekuan egon zarela ondorioztatzen dut —esan zuen koronelak—.

—Bai, inspektoreak eta biok lan ona egin dugu elkarrekin.

—Arrakastarik izan duzue?

—Beno, gauza interesgarri batzuk ikusi ditugu. Esango dizut zer egin genuen oinez goazela. Lehenik eta behin, zoritxarreko gizon horren gorpua ikusi genuen. Errebolberrak eragindako zauri baten ondorioz hil zen, jakinarazi zuten bezala.

—Zalantzan jartzen zenuen orduan?

—O, hobe da dena egiaztatzea. Gure ikuskapena ez zen alferrik izan. Gero, Cunningham jaunarekin eta bere semearekin hitz egin genuen, eta gai izan ziren adierazteko non hautsi zuen hiltzaileak lorategiko hesia bere ihesean. Hori interes handikoa izan zen.

—Jakina.

—Orduan, begirada bat bota genion gizagaixo honen amari. Hala ere, ezin izan genuen informaziorik lortu, oso zaharra eta ahula baita.

—Eta zein da zure ikerketen emaitza?

—Krimena oso berezia delako uste osoa daukat. Agian gure bisitak argitzen lagun dezake. Uste dut biok ados gaudela, inspektore jauna, hildakoaren eskuan dagoen paper-zatiak, heriotzaren ordu zehatza idatzita duenak, garrantzi handia duela.

—Horrek pista bat eman beharko luke, Holmes jauna.

—Arrasto bat ematen du. William Kirwan ordu horretan ohetik atera zuen gizonak idatzi zuen ohar hori. Baina non dago orri horren gainerakoa?

—Lursaila kontu handiz aztertu nuen, aurkituko nuelakoan —esan zuen inspektoreak.

—Hildakoari eskutik kendu zioten. Zergatik zegoen hain irrikatsu papera lortzeko? Inkriminatu egiten zuelako. Eta zer egingo zuen berarekin? Seguruenik poltsikoan sartuko zuen, bazter bat gorpuaren atzaparretan geratu zela konturatu gabe. Orri horren gainerakoa lortu ahal izango bagenu, argi dago asko aurreratuko genukeela misterioaren ebazpenean.

—Bai, baina nola hel gaitezke kriminalaren poltsikora hura harrapatu baino lehen?

—Beno, tira, merezi zuen pentsatzeak. Beste puntu nabarmen bat dago. Oharra Williami bidali zioten. Idatzi zuen gizonak ezin izan zuen hartu, bestela, noski, ahoz aho transmititu zezakeen mezua. Nork ekarri zuen oharra, orduan? Ala postaz iritsi al zen?

—Ikerketak egin ditut —esan zuen inspektoreak—. Williamek gutun bat jaso zuen atzo arratsaldean postaz. Berak suntsitu zuen gutun-azala.

—Bikain! —esan zuen Holmesek, inspektoreari bizkarrean zaplada bat emanez—. Postaria ikusi duzu. Plazer bat da zurekin lan egitea. Beno, hemen dago txabola, eta igotzen bazara, koronela, krimenaren eszena erakutsiko dizut.

Hildako gizona bizi zen etxetxo politaren aurretik igaro ginen, eta haritzek inguratutako etorbide batetik abiatu ginen, Ana erregina estiloko etxe dotore eta zaharrerraino, Malplaquet-en eguna ateko ateburuan daramana. Holmesek eta inspektoreak alboko ateraino eraman gintuzten. Ate hori lorategi-zati batek bereizten du errepidea inguratzen duen hesitik. Polizia bat zegoen sukaldeko atean.

Ireki atea parez pare, ofiziala —esan zuen Holmesek—. Eskailera horietantxe gelditu zen Cunningham jauna, eta bi gizonak ikusi zituen borrokan, gauden lekuan. Cunningham jaun zaharra leiho hartan zegoen, bigarrena ezkerrean, eta ikusi zuen tipoa zuhaixka haren ezker aldean urruntzen ari zela. Semeak ere ikusi zuen. Biak ziur daude horretaz zuhaixkagatik. Orduan Alec jauna korrika atera eta zaurituaren ondoan belaunikatu zen. Lurra oso gogorra da, ikusten duzunez, eta ez dago gidatzen gaituzten seinalerik. Hizketan ari zela, bi gizon jaitsi ziren lorategiko bidezidorretik, etxe kantoitik. Bata adineko gizona zen, aurpegi sendoa zuena, zimur sakonak eta begi astunak zituen; bestea, mutiko

lerdena, bere aurpegi distiratsu eta irribarretsuak eta haren janzkera deigarriak hara ekarri gintuen negoziorekin bitxiki kontrastatzen zuten.

—Horrela jarraitzen al duzu, orduan? —galdetu zion Holmesi—. Uste nuen zuek, londrestarrek, ez zenutela inoiz errurik. Azken finean, ez dirudi hain azkarrek zaretenik.

—A, denbora pixka bat eman behar diguzu —esan zuen Holmesek umore onez.

—Beharko duzu —esan zuen Alec Cunningham gazteak—. Ez dut ikusten aztarnarik dugunik.

—Bat besterik ez —erantzun zuen inspektoreak—. Uste genuen aurkituko bagenu... Ene, Holmes jauna! Zer gertatzen da?

Nire lagun gaixoaren aurpegiak itxura beldurgarri hartu zuen bat-batean. Begiak zuri-zuri jarri zitzaizkion, aurpegierak agoniaz bihurritu ziren, eta, intziri erreprimitu batez, lurrera erori zen. Ondoezaren bat-batekotasunak eta larritasunak izututa, sukaldera eramanez, eta han aulki handi batean etzan zen, eta minutu batzuetan nekez hartu zuen arnasa. Azkenean, bere ahuleziagatik lotsatuta, barkamena eskatu zuen eta berriro zutitu zen.

—Watsonek esango lioke gaixotasun larri batetik osatu berri naizela, —azaldu zuen—. Bat-bateko nerbio-krisiak izan ohi ditut.

—Etxera bidaliko al zaitut nire tranpan? —Galdetu zuen Cunningham zaharrak.

—Beno, hemen nagoenez, puntu bat ziur egotea gustatuko litzaidake. Erraz egiazta dezakegu.

—Zein?

—Beno, uste dut oso litekeena dela William gaixoa ez etorri izana lapurra etxean sartu baino lehen, ondoren baizik. Badirudi, atea bortxatua izan arren, lapurra ez zela inoiz sartu.

—Uste dut hori nahiko bistakoa dela —esan zuen Cunningham jaunak seriotasunez—. Beno, nire seme Alec oraindik ez zen oheratu, eta, zalantzarik gabe, mugituko zen edonor entzungo zuen.

—Non zegoen eserita?

—Nire apaingelan erretzen ari nintzen.

—Zer leiho da hori?

—Azkena ezkerretara, aitarenaren ondoan. —Zure bi lanparak piztuta zeuden?

—Zalantzarik gabe.

—Hemen oso puntu bereziak daude —esan zuen Holmesek irribarrez.

—Ez al da harrigarria lapur bat —nolabaiteko esperentzia duen lapur bat— apropos etxe batean sartzea nahiz eta argiei esker ikus zezakeen familiako bi kidek esna jarraitzen zutela?

—Tipo lasaia izango zen.

—Beno, noski, kasua hain arraroa ez balitz, ez ginatekeen behartuta egongo azalpen bat eskatzera —esan zuen Alec jaun gazteak—. Williamek erasotu aurretik gizonak etxea lapurtu zuela pentsatzeari

dagokionez, ideia zentzugabea iruditzen zait. Ez al genuen lekua desordenatua aurkituko eta ez al genuke hartu zituzten gauzen falta nabarituko?

—Segun eta zer gauza ziren —esan zuen Holmesek.

—Gogoratu oso lapur berezia dela, eta badirudi bere ideia propioak dituela. Begira, adibidez, Acton-en etxetik eraman zuen gauza bitxi guzti horiek... Zer ziren? Harizko harilko bat, gutun-zapalgailu bat eta ez dakit beste zer gauza.

—Zure esku gaude, Holmes jauna —esan zuen Cunningham zaharrak—. Zuk edo ikuskatzaileak iradokitzen duzuen edozer egingo dugu, zalantzarik gabe.

—Lehenik eta behin —esan zuen Holmesek—, sari bat eskaintzea gustatuko litzaidake, zuregandik etorrita, funtzionarioek denbora pixka bat eman baitezakete kopurua adosteko, eta gauza horiek ezin dira azkarregi egin. Inprimakia hemen idatzi dut, sinatzea axola ez bazaizu. Berrogeita hamar libera nahikoa dela pentsatu dut.

—Gustura emango nituzke bostehun —esan zuen bake epaileak Holmesek emandako papera eta arkatza hartuta—. Hala ere, hori ez da guztiz zuzena —gaineratu zuen, dokumentuari begiratzuz—. Nahiko azkar idatzi nuen.

—Begira, hasierak horrela dio: "Astearte goizeko ordu bata laurden gutxitan, gutxi gorabehera, atentatu bat egin zela kontuan hartuta", eta horrela hurrenez hurren. Berez hamabiak laurden gutxitan izan zen. Min eman zidan akatsak, izan ere, banekien Holmesi biziki eragingo ziola horrelako hutsegite batek. Bere espezialitatea gertakariekin zehatza izatea zen, baina bere gaixotasunak asalatu egin zuen, eta gertaera txiki haonen bidez argi geratu zen bera izatetik urrun zegoela oraindik. Bistan zen lotsatuta sentitu zela une batez, inspektoreak bekainak okertzen zituen bitartean, eta Alec Cunninghamek barre egiten zuen bitartean. Hala ere, adineko gizonak akatsa zuzendu eta papera itzuli zion Holmesi.

—Inprima ezazue lehenbailehen, —esan zuen—; zure ideia bikaina dela uste dut.

Holmesek kontu handiz gorde zuen paper zatia bere diru-zorroan.

—Eta orain —esan zuen—, ongi legoke etxea ikuskatzera joango bagina, eta, lapur alderrai horrek ezer ez zuela eraman ziurtatuko bagenu.

Sartu baino lehen, Holmesek bortxatutako atea aztertu zuen. Bistan zen zizel bat edo ganibet sendo bat sartu zutela, eta sarraila bortxatu zutela. Markak zuran ikus genitzakeen.

—Ez al duzue barrarik erabiltzen? —galdetu zuen—. Ez dugu inoiz beharrezkotzat jo—.

—Ez duzue txakurrik?

—Bai, baina kateatuta dago etxearen beste aldean.

—Zer ordutan oheratzen dira zerbitzariak?

—Hamarrak aldera.

—Uste dut William ere ohean zegoela ordu horretan.

—Bai.

—Bitxia da gau hartan esna egon izana. Eskertuko nizuke etxea erakutsiko bazenigu, Cunningham jauna. Harrizko korridore bat, ukaldeak banatzen zituena, zurezko eskailera batetik zihoan zuzenean etxeko lehen solairura. Harrera-gelatik igotzen zen bigarren eskailera apaingarriago baten kontrako eskailera-burura iristen zen. Eskailera-buru horretatik egongela eta logela batzuk irekitzen ziren, Cunningham jaunarenak eta haren semearenak barne. Holmes astiro zebilen, etxeko arkitekturari arreta handia eskainiz. Haren aurpegieragatik ohartu nintzen arrasto kezkarri bati jarraitzen ari zitzaiola, baina ezin nuen inola ere imajinatu bere inferentziek nora zeramaten.

—Jauna —esan zuen Cunningham jaunak urduri samar—, hori ez da beharrezkoa, ziur nago. Eskaileren amaieran dagoena nire gela da, eta nire semearena, haratago dagoena. Zure iritzirako utziko dut ea lapurra honaino iritsi ahal izan zen gu molestatu gabe.

—Nire ustez, pista berri bat jarraitu beharko zenuke —esan zuen semeak irribarre maltzurrez—.

—Dena dela, nirekin bat egin dezazun eskatuko dizut. Gustatuko litzaidake, adibidez, ikustea logeletako leihoetatik noraino ikusten den aurrekaldea. Hau, ulertu dudanaren arabera, zure semearen gela da —atea ireki zuen bultzada batez—, eta hori da, nik uste, alarmak jo zuenean zure semea eserita zegoen aldagela. Nora ematen du leihoak? Logela gurutzatu, atea bultzatu eta beste gelara begiratu zuen.

—Orain pozik egotea espero dut —esan zuen Cunningham jaunak zakarki.

—Eskerrik asko, uste dut nahi nuen guztia ikusi dudala.

—Orduan, benetan beharrezkoa bada, nire logelara joan gaitezke.

—Traba handia ez bada.

J.P.-k sorbaldak jaso eta bere gelara joan zen, gela arrunt eta xume batera. Leihorantz abiatu ahala, Holmesek atzera egin zuen bera eta biok taldeko azkenak izan ginen arte. Ohearen oinaren ondoan laranja plater bat eta ur pitxer bat zeuden. Holmes, nire harridurarako, nire aurrean makurtu zen, eta nahita bota zuen dena. Kristala mila puskatan puskatu zen, eta fruitua gelako zoko guztietaraino heldu zen.

—Ederra egin duzu, gero, Watson —esan zuen hotz—. A zer nolako nahaspila egin duzun alfonbran. Apur bat nahastuta makurtu eta fruituak biltzen hasi nintzen, eta pentsatu nuen nire lagunak, arrazoiren batengatik, errua nere gain hartzea nahi zuela. Besteek gauza bera egin zuten eta mahaia ongi jarri zuten berriro.

—Kaixo! —oihu egin zuen inspektoreak—. Non sartu zara? —Holmes desagertua zen.

—Itxaron hemen une batez —esan zuen Alec Cunningham gazteak—. Nire ustez, tipo hori erotuta dago. Zatoz nirekin, aita, ea nora joan den begiratzera!

Korrika irten ziren gelatik, eta inspektorea, koronela eta ni elkarri begira geratu ginen.

—Jainkoarren, Alec jaunarekin ados nago —esan zuen ofizialak—. Gaixotasunaren eragina izan daiteke, baina uste dut...

Bat-bateko oihu batek eten zituen haren hitzak, “Lagundu! Laguntza! Hilketa!” Hotzikaraz, nlagunaren ahotsa ezagutu nuen. Gelatik eskailburura irten nintzen korrika. Oihuak, oihu erlats eta artikulatugabeak bihurtuak, lehendabizi bisitatu genuen gelatik zetozen. Korrika sartu eta aldagelara joan nintzen. Cunninghamtarrak Sherlock Holmesen irudi etzanaren gainean makurtuta zeuden, gazteena bi eskuez eztarriari helduz, eta zaharrena, berriz, eskumuturretako bat bihurritzen ari zela zirudien. Une batean, gu hirurok harengandik aldendu genituen, eta Holmes zutitu egin zen balantzaka, zurbil eta oso nekatuta.

—Atxilotu gizon hauek, inspektorea —esan zuen arnastuka—. Zein kargurekin?

—Bere gurdizaina, William Kirwan, hiltzeaz.

Inspektoreak ingurura begiratu zuen harrituta.

—Tira, tira, Holmes jauna —esan zuen azkenean—, ziur nago zure asmoa ez dela benetan...

—Tira, gizona, begira itzazu haien aurpegiak! —egin zuen oihu Holmesek lehor.

Ez dut inoiz ikusi giza aurpegietan erru-aitorpen argiagorik. Agureak zorabiatuta zirudien, eta aurpegiera astun eta zakarra zeukan. Semeak, ordea, haren estilo lerdana alde batera utzia zuen, eta basapiztia arriskutsu baten basakeriak distira egiten zuen haren begi ilunetan, eta desitxuratu egiten zituen haren hazpegi ederrak. Inspektoreak ez zuen ezer esan, baina, atera hurbildu eta txilibitua jo zuen. Bi polizia-agente hurbildu ziren harengana.

—Ez daukat beste aukerarik, Cunningham jauna —esan zuen—. Espero dut hau guztia akats zentzugabea izatea, baina ikus dezakezu... A, mesedez, aska ezazu! —Eskuaz jo zuen, eta gazteak tiro egiteko prest zeukan errebolberra lurrera erori zen, zarata metaliko bat eginez.

—Zuretzat —esan zuen Holmesek, oina gainean jarriz—. Epaketan erabilgarria izango zaizu. Baina hau da benetan nahi genuena —. Paper puska zimurtu bat jaso zuen.

—Orriaren gainerakoa! —oihu egin zuen inspektoreak—.

—Hain zuzen ere.

—Eta non zegoen?

—Pentsatu nuen tokian. Berehala argituko dizut kontua. Uste dut, koronela, zu eta Watson orain itzul zaitezketela, eta gehienez ere ordubete barru berriro zuekin egongo naiz. Inspektoreak eta biok atxilotuekin hitz egin behar dugu, baina segur asko bazkalorduan ikusiko nauzu.

Sherlock Holmesek bere hitza bete zuen, ordu bata inguruan koronelaren erretzaile-gelan elkartu baitzen gurekin. Gizon nagusi eta baxu bat zuen lagun, eta Acton jauna bezala aurkeztu zidaten, haren etxean gertatu zen lapurreta.

—Kontu txiki hau azaltzen dizudan bitartean, Acton jauna bertan egotea nahi nuen —esan zuen Holmesek—, normala baita xehetasunen inguruko interesa izatea. Uste dut, koronel maitea, damutu beharko zinatekela ni bezalako gizon gatazkatsu bati lana eskaini izana.

—Alderantziz —erantzun zuen koronelak amultsuki—, zure lan-metodoak aztertzea pribilegiarik bat izan da. Aitortu beharra daukat nire espektatibak aise gainditzin dituztela, eta ez naizela erabat gai zure emaitza azaltzeko. Oraindik ez dut zantzurik txikiena ere ikusi.

—Beldur naiz nire azalpenak desilusionatuko ote zaituen, baina beti izan dut ohitura nire metodoetako bat bera ere ez ezkutatzeko, ez nire lagun Watsoni, ez beste ezein aditu. haiengan interes izan dezakeen edozeini. Baina, lehenik, aldagelan jaso ditudan kolpeek nahiko jota nagoenez, uste dut zure brandyaren txorrotada bat hartuko dudala, koronela. Azkenaldian, nire indarrak nahiko leher eginda egon dira.

—Espero dut nerbio-krisi horiek berriro ez jasan izana.

Sherlock Holmesek barre egin zuen gogo onez. —Horretara iritsiko gara —esan zuen—. Kasua dagokion ordenan azalduko dizuet, eta nire erabakian gidatu ninduten puntuak erakutsiko dizkizuet. Arren eskatzen dizuet eteniezadazue, baldin eta zuentzat erabat argi ez dagoen inferentziaren bat baldin badago.

Ikerketetan oso garrantzitsua da antzematea hainbat gertakariaren artean zeintzuk diren bigarren mailakoak eta zeintzuk ezinbestekoak. Bestela, zure energia eta arreta desagertu egingo dira, kontzentratu beharrean. Nolanahi ere, kasu honetan hasieratik ez nuen zalantzarik izan gai osoaren gakoa hildakoak eskuan zuen paper zatian bilatu behar zela.

—Xehetasunetan sartu baino lehen, ohartarazi nahi nizueke Alec Cunninghamen bertsioa zuzena bazen, eta erasotzaileak, William Kirwani tiro egin ondoren, berehala ihes egin bazuen, orduan, jakina, ez zela bera izan hildakoaren eskutik papera kendu zuena. Baina bera ez bazen izan, Alec Cunningham bera izango zen, zeren, agurea jaitsi zenerako, zerbitzari batzuk bertan baitzeuden. Kontua sinplea da, baina inspektoreak ez zion jaramonik egin, konderriko handiki haiek gaiarekin zerikusirik ez zutela uste zuelako. Dena den, ahalegintzen naiz aurreiritzirik ez izaten eta eramaten nauten gertaerei otzan-otzan jarraitzen, eta horrela, ikerketaren lehen etapan, nolabaiteko errezeloz begiratzen nion Alec Cunningham jaunaren paperari.

—Eta orain arreta handiz aztertu dut inspektoreak eman digun paperaren kantoia. Berehala argi geratu zait oso dokumentu aipagarri baten parte dela. Hemen dago. Ez al duzu orain zerbait iradokitailerik ikusten?

—Oso itxura irregularra du —esan zuen koronelak—. Nire jaun agurgarria —, oihu egin zuen Holmesek—, ez dago zalantzarik bi pertsonak idatzi zutela hitzak txandakatuz. at eta to hitzen t Indartsuei arreta jartzen badiozu, eta quarter eta twelve hitzekin alderatzen badituzu, berehala

konturatuko zara. Lau hitz horien azterketa labur bati esker egiaztatzen da learn eta maybe hitzak letra indartsuenekin idatzita daudela, eta what hitza ahulenarekin.

—Jainkoarren, argi eta garbi ikus daiteke! —oihu egin zuen koronelak—. Zergatik idatziko lukete bi gizonek gutun bat horrela?

—Argi dago kontu serioa zela, eta besteaz mesfidatzen zen gizonetako batek erabaki zuen, dena delakoa egiten zutela ere, biek berdin parte hartuko zutela. Baina, argi dago at eta to idatzi zituena buruzagia zela.

—Nola iritsi zara ondorio horretara?

Esku bat bestearekin alderatze hutsetik ondoriozta genezake. Baina hori baino arrazoi sendoagoak ditugu hori pentsatzeko. Zati hau arretaz aztertzen baduzu, ondorio hau aterako duzu: esku sendoena zuen gizonak idatzi zituen lehenengo haren hitzak, eta hutsuneak utzi ziteun besteak bete zitzen. Espazio zuri horiek ez ziren beti nahikoak izan, eta ikus daiteke bigarren gizonak hitzak estutu behar izan zituela quarter hitza sartzeko at eta to hitzen artean, eta horrek erakusten du azken horiek jada idatzita zeudela. Bere hitz guztiak lehenengo idatzi zituen gizona izan zen, dudarik gabe, delitua prestatu zuena.

—Bikain! —oihu egin zuen Acton jaunak.

—Baina oso azalekoa —esan zuen Holmesek—. Orain, ordea, puntu garrantzitsu batera iritsi gara. Litekeena da ez jakitea hainbat adituk landu dutela gizon baten adina haren idazkeraren bitartez ondorioztatzea. Kasu normaletan, norberak bere benetako hamarkadan konfiantza onargarria izan dezake. Kasu normaletan, gizon baten adina ziurtasunez kalkula daiteke. Kasu normalak aipatzen ditut, osasun txarra eta ahulezia fisikoak zahartzaroaren zeinuak erreproduzitzen baititu, baita gaixoa gaztea denean ere. Kasu horretan baten esku sendo eta ausartari erreparatuz gero, eta bestearen itxura apur bat lausotuari begiratzuz gero (oraindik ere irakurgarritasunari eusten dio, nahiz eta t horiek gurutzaketa galtzen hasi diren), esan dezakegu bata gizon gaztea zela, eta bestea, berriz, adinekoa, erabat zaharkituta egon gabe.

—Bikain! —esan zuen Acton jaunak berriro.

—Hala ere, badago puntu sotilago eta interesgarriago bat. Bi eskuek zerbait dute amankomunean. Odolkideak diren gizonenak dira. Baliteke zuretzat "e" grekoetan nabariagoa izatea, baina niretzat gauza bera adierazten duten xehetasun txiki asko daude. Ez dut zalantzarik bi idazkera-ale hauetan familia-manierismo bat arakatu daitekeela. Jakina, orain nire lanaren azterketaren emaitza nagusiak besterik ez dizkzutt aurkeztu. Baziren beste hogeita hiru ondorio, adituentzat zuretzat baino interesgarriagoak izango zirenak. Denek lagundu zidaten ondorioztatzen Cunninghamtarrek, aita-semeek, gutun hau idatzi zutela.

—Hain urrutira iritsita, nire hurrengo urratsa krimenaren xehetasunak aztertzea izan zen, noski, eta zein neurritan lagunduko ziguten ikustea. Inspektorearekin etxera igo eta ikusi beharreko guztia ikusi nuen. Hildakoaren zauria, ziurtasun osoz jakin ahal izan nuenez, errebolber batek tirokatu zuen lau yarda baino gehiagora. Arropna ez zegoen bolbora orbanik. Beraz, jakina, Alec Cunninghamek gezurra esan zuen tiroa gertatu zenean bi gizonak borrokan ari zirela esan zuenean. Beste behin ere, bai aita eta bai semeak bat egin zuten gizonak ihes egin zuen lekuari buruz hitz egiterakoan. Leku horretan, ordea, kasualitatez, zanga zabal samarra dago, hondoa heze duena. Lubaki hartan bota-aztarnarik ez zegoenez, erabat ziur nengoen ez bakarrik Cunninghamdarrek berriro gezurra esan zutela, baita krimenaren eszenan ezezagunik egon ez zela esan zutenean ere.

—Ondoren, krimen berezi honen arrazoia aztertu behar nuen. Horretarako, Acton jaunaren etxean egindako lapurretaren arrazoia argitzen saiatu nintzen. Koronelak esan zigunez, Acton jauna, zure eta Cunninghamtarren artean auzi bat zegoela ulertu nuen. Jakina, berehala bururatu zitzaidan zure liburutegian sartu zinetela, kasuan garrantzitsua izan zitekeen dokumenturen bat lortzeko asmoz.

—Halaxe da —esan zuen Acton jaunak—. Ez dago zalantzarik haien asmoei dagokienez. Eskubide guztia dut egungo ondarearen erdia eskuratzeko, eta dokumentu bakarra aurkitu izan balute —zorionez, nire abokatuen kutxa gotorrean zegoen—, zalantzarik gabe gure kasua hondatuko zuket.

—Hor duzu —esan zuen Holmesek irribarrez—. Saiakera arriskutsua eta zuhurtziaganea izan zen, eta Alec gaztearen eragina ikus daiteke bertan. Ezer aurkitu ez zuten, susmoak desbideratzen saiatu ziren, lapurreta arrunt baten itxura emanez, eta ahal zuten guztia eraman zuten. Hori guztia nahiko argi dago, baina oraindik asko zegoen argitzeko. Batez ere oharretik falta zen zatia berreskuratu nahi nuen. Ziur negoen Alecek eskutik kendu ziola hildakoari, eta ia ziur bere txabusinaren poltsikoan sartu zuela. Non sartu ote zuen bestela? Galdera bakarra zen ea han jarraitzen zuen. Merezi zuen jakitea, eta horretarako denok igo ginen etxera.

—Cunninghamtarrak gurekin bildu ziren, gogoratuko duzuen bezala, sukaldeko atearen aurrean. Oso garrantzitsua zen, noski, paper horren existentzia ez gogoratzea, bestela, berehala suntsituko zuten. Inspektorea haren garrantzia azaltzear zegoen, eta kasualitatez, nerbio-krisi bat jasan nuen eta elkarriketa aldatu zen.

—Ene! —oihu egin zuen koronelak barrez—, esan nahi duzu gure begikotasun guztia alferrik izan dela eta zure nerbio-krisia iruzur hutsa izan dela?

—Profesionalki hitz eginez, bikaina izan da —adierazi nuen, beti bere abileziaren alderdi berri batekin nahasten ninduen gizon honi harriduraz begiratu.

—Askotan erabilgarria da —esan zuen—. Suspertu nintzenean, trikimailu baten bitartez lortu nuen Cunningham zaharrak twelve hitza idaztea papereko twelve hitzarekin alderatu ahal izateko.

—O, zein ergela izan naizen! —oihu egin nuen.

—Konturatu nintzen nitaz errukitzen zinela nire ahultasunagatik —esan zuen Holmesek, barrez—. Sentitzen dut erruki hori sentitu izana. Ikarrekin igo genituen eskailerak, eta gelan sartu eta ate atzean zintzilik zegoen mantala ikusi ondoren, mahai bat irauliz, une batez haren arreta erakarri nuen, eta sakelak aztertzerako joan nintzen. Egunkaria aurkitu orduko —haietako batean zegoen, espero nuen bezala—, bi Cunninghamek eraso egin zidaten, eta, benetan uste nuen une horretan bertan hilko nindutela, zuen laguntza azkar eta adiskidetsuagatik izan ez balitz. Izan ere, gazte horren presioa sentitzen nuen eztarrian, eta aitak eskumuturra bihurritu dit egunkaria eskutik kendu nahian. Dena deskubritzear nengoela ikusi zuten, eta erabateko segurtasunetik erabateko etsipenerako bat-bateko aldaketak erabat etsi zituen.

—Geroago, elkarriketa txiki bat izan nuen Cunningham zaharrarekin krimenaren arrazoiari buruz. Nahiko otzana zen, nahiz eta semea deabru hutsa izan, eta bere buruari edo beste edozeini tiro egiteko prest, errebolberra lortu izan balu. Cunninghamek bere kontrako kasua hain indartsua zela ikusi zuenean, etsi egin zen eta dena zuri utzi zuen. Cunninghamek bere kontrako frogak hain sendoak zirela ikusi zuenean, adoregabatu eta dena aitortu zuen. Badirudi Williamek sekretupean jarraitu ziela bere bi ugazabei Acton jaunaren etxeari eraso egin zioten gauean, eta, horrela bere esku zeudenean, xantaia egin zien, salatuko zituela esanez. Alec jauna, hala ere, gizon arriskutsua zen horrelako jokoetarako. Jenio baten ideia izan zen eskualde osoa aztoratu zuen lapurreta baliatzea beldur zen gizona begibistik galtzeko. William engainatu eta fusilatu egin zuten, eta ohar osoa lortu izan balute eta osagarrien xehetasunei arreta pixka bat gehiago jarri izan baliote, baliteke inoiz susmorik ez piztu izatea. —Eta oharra? —galdetu nuen.

Sherlock Holmesek ondoko papera jarri zuen gure aurrean.

—Horixe espero nuen —esan zuen—. Jakina, oraindik ez dakigu zein den Alec Cunningham, William Kirwan eta Annie Morrisonen arteko ahaidetasuna. Emaiztekin erakusten dute tranpa trebetasunez prestatu zela. Ziur naiz izugarri gustatuko zaizkizula p letran eta g letraren muturretan antzematen diren herentzia arrastoak. Agurearen i letran punturik ez egotea ere oso bereizgarria da. Watson, uste dut landan izan dugun atsedean lasaia arrakastatsua izan dela, eta, zalantzarik gabe, bihar itzuliko naiz Baker Streetera, kementsuago.